

Agente Ierrokatuak

Euskadiko Elikadura Osasungarrirako Ekimenak aplikatzeko, aktore askok eta oso desberdinek esku hartu behar dute, koordinatuta eta sinergikoki, helburu komunak lortuko badira. Programa hau helmugara eramateko ezinbesteko aktoreetako batzuk euren eguneroko lanarekin biztanleei elikagaiak hornitzen dizkieten sektoreak dira. Sektore horietan oso azkar ezartzen da elikadura osasungarriaren inguruko hobekuntzak gizartearen eskaera eta ardura korporatiboa ez ezik negozio aukera ere badiren ideia.

Esparru estrategiko horren ildotik, ostalaritza, jatetxeak, sukaldaritza soziala, elikadura industria eta banaketa bezalako sektoreak sartu dira. Baita vendingaren eta, oro har, elikadura segurtasunaren sektoreko adituak ere.

Elikadura osasungarriaren inguruko hobekuntzak bultzatzeko akordio estrategikoak lortzea espero dugu: produktuetan gatzak, azukrea eta gantz erantsiak gutxitzea, fruta eta barazkien kontsumoa sustatzea, menuen eta produktu osasungarrien eskaintza hobetzea eta abar.

3. PROIEKTUA

IKASTETXEETAKO JANGEL- LEN 360º-KO EGUNERATZEA

6 ETA 15 PROIEKTUEN OSAGARRI

Hezkuntza Sailaren datuen arabera, 2016/17 ikasturtean 187.841 jankide egon ziren. Hau jangela zerbitzua eskaintzen duten zentruetako ikasleentz %56a da. Guztira, Haur Hezkuntzako eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleentz %50a da, ikastetxe guztietan ez baitute jangela zerbitzua eskaintzen.

Inguru horietako kontsumoan eragiteak nabarmen lagundu dezake Euskadiko elikadura ohiturak hobetzen hainbat arrazoigatik:

- Barne hartuko lukeen jankide kopuru handia dela eta.
- Adin horretan etorkizunerako elikadura gustuak eta ohiturak eratzen direlako.
- Haur eta gazteen elikadura ohiturek euren familien elikaduran nabarmenki eragiten dutelako.

Hori lortzeko, ikastetxeetako jangelen zerbitzuen hobekuntza integralerako prozesu bat proposatzen da, bi gairen inguruan aldaketak eginez:

1. Eskaintzaren berrikuntza

Ikastetxeekin lan egitea proposatzen zaie sukalde zentrali, ikasleei aukeraketa osasungarriagoa egitea erraztuz, plateren edo produktuen itxura zainduta eta horien formatua hobetuta, erakargarriagoak eta atsegingarriagoak izan daitezten.

2. Kontsumo inguruneen hobekuntza


Azken hamarkadetakoa aldaketa sozio-kulturalen ondorioz, ikastetxeetako jangelen erabilgaitzaile

kopuruak asko egin du gorantz. Espazioak handitzea ezinezkoa denez, otorduak hainbat txandatan eskaintzen dira orain. Hori dela eta, jankideek denbora mugatu batean egin behar dituzte otorduak eta jangelen kudeaketa are konplexuagoa bihurtu da.

Aukeraketa osasungarriagoa egitea da helburua, inguru fisikoan (eremuaren diseinua eta banaketa) eta kontsumo giroan (ahorakin erritmoak, zarata eta abar) esku hartuta. Horretarako, arkitektura estudioen, dekoratzaile eta artisten eta abarren parte hartzea proposatzen da.

Helburu nagusiak

- Jangela kolektiboetan fruta eta barazki kontsumoa handitzea.
- Berrikuntza bideak aktibatzea, menuen eta plater osasungarrien prestaketa eta aurkezpenari dagokienez.
- Lekuen antolaketa eta ahorakin erritmoen kudeaketa aztertzea.
- Euren borondatez proiektuarekin bat egingo duten 10 jangela erakartzea, gutxienez.



ERRONKAK

- BERRIKUNTZA BIDEAK ERABILIZ ELIKADURA OSOSUNGARRIRA BULTZATZEA
- IKASTETXE PUBLIKO, PRIVATU, ZEIN ITUNDEKO IKASTETXEEN INPLIKAZIOA LORTZEA

4. PROIEKTUA

VENDING INTELIGENTE ETA OSASUNGARRIA

Euskadin, badira snack edo aperitibo osasungarriak edukitzeko beharri erantzuteko ekimenak, eta “osasungarritzat” jotzen dira NAOS Estrategiaren elikadura irizpideak betetzen dituzten produktuak. Helburua lortzeko sendoago aurrera egiten lagunduko diguten sinergiak sortzeko, indarrak batzea eta ekimen horien bultzatzaileekin lan egiten jarraitzea proposatzen du Euskadiko Elikadura Osasungarriko Ekimen programak.

Horretarako, lau dimentsiotan ekin-tzak aurreikusten dituen programa bat proposatzen da:

- 1. Informazioa:** informazioa eta argudioak biltzen dituzten gida praktikoa batzuk sortzea, enpresa pribatu, erakunde publiko eta *vending* operadoreentzat.
- 2. Eskaintza:** formatu eta prezio erakargarriagoak dituzten produktu osasungarriak kanalerara egokitutakoak, edukitzeko ikerketa.
- 3. Logistika:** soluzioen ikerketa eta garapena, arazo logistikoei erantzuteko (birjartze maiztasuna, produktuen bizitza erabilgarria eta abar).
- 4. Makina-kontsumitzaile erlazioa:** berrikuntza teknologikoak, erosketa gehiago hausnartzeko eta hain inpultsiboa ez izateko.

Helburu nagusiak

- Gidak *vending* makinak dituzten erakunde guztien (%100) artean zabaltzea.
- *Vending* makinak dituzten erakundeen %70en atxikipena lortzea.
- Programara atxikitako erakundeen *vending* makinetan eskaintzen diren produktuen erdiek (%50) NAOS Estrategiaren irizpideak betetzea.

5. PROIEKTUA

OSTALARITZAKO ESTABLEZIMENDUENTZAKO “NOLA MERKATU-KUOTA IRABAZI ESKAINTZA OSASUNGARRI BATEKIN?” MULTIMEDIA GIDA

Pertsona askok ostalaritzako establezimendu batean egiten dute eguneko otorduetako bat gutxienez; beraz, logikoa dirudi pentsatzeak sektore horrek aktiboki inplikaturatuta egon beharko lukeela Euskadiko Elikadura Osasungarriko Ekimen programan.

Elikadura estilo osasungarriagoen gaineko gero eta interes sozial handiagoa aukera bat da elikatze-kateko agenteek NAOS Estrategiak ezarritako irizpideekin bat datorren ikuspegi osasungarri eta koherentearekin bat egiteak duen balio erantsia ikus dezaten. Horregatik, establezimenduak (mota desberdinetakoak) eskaintza osasungarriago baterantz eramango dituen multimedia gida bat egitea planteatzen da.

Helburu nagusiak

- Garrantzi sozial handia duten sektore bateko establezimenduen %10en atxikipena.
- Ostalaritza sektorean eskaintza osasungarriagoa edukitzea.



6. PROIEKTUA

GATZA PIXKANAKA GUTXITZEKO PROGRAMA

Gomendatutako gatz kopuruaren bikoitza kontsumitzen dugu. Horren %75 erosten ditugun produktuek edukitzen dute, hortaz, garrantzitsua da arazoari elikagaien ekoizpen eta prozesatze fasean heltzea. Horretarako, akordio multisektorial baten bidez herritarrek gehien kontsumitzen dituzten eta pertsonen dietan gatz kopuru handia ezartzen duten elikagaien ekoizleekin kolaboratzea proposatzen da, gatza pixkanaka gutxitzeko programa bat abian jartzeko.

Pixkanaka gatz gutxiagoko produktuetara ohitzen ikasiko du kontsumitzaileak jarraikako hainbat etapatan.

Abian jartzeko, proposatzen da proba pilotu bat egitea inguruko agente ekoizle eta/edo banatzaile garrantzitsuenen atxikipena duen gunen geografiko lokalizatu batean.

Helburu nagusiak

- Gatz kontsumoa txikitzea

